

ZER GERTATZEN ARI DA EUSKAL HERRIKO BIZTANLEGOAREKIN?

Demografiaren baitan ematen ari diren aldaketek eragin nabarmena dute gizartearen ekonomia, politika, kultura zein jarrera eta baloreengan. Azken finean, biztanleen kopuru, dentsitate, banaketa eta mugimenduek herrien bizimodu eta bilakaera zehazten baitute. Gehiago esango nuke, biztanleria herrien gorputza da; bere etorkizuna ziurtatzeko beharrezkoa den lehen osagaia. Izan ere, biztanlerik gabe ez dago gizarterik sortzeko baldintzarik ez inolako etorkizunik. Honenbestez, demografiaren mugimendu eta bilakaera ezagutzea nahitaezkoa da herri baten oraina eta, bereziki, geroa ulertu nahi badira. Areago, gizarte batek bere etorkizunaren jabe egin nahi badu, bere baitan ematen ari diren aldaketen izaera ezagutu beharra dauka, eta, momentu honetan, Euskal Herriaren etorkizunean eragin izugarria izango duten aldalketa demografikoak gertatzen ari dira. Gehiago esango nuke, aztertzea merxezi duen transizio demografiko batean dago Euskal Herria.

Idazki honetan, beraz, Euskal Herriko joera demografiko nagusienak aztertuko ditugu, hauek eragingo dituzten zenbait ondorioei buruzko gogoetarekin batera.

1. Euskal Herriko demografiaren historia eta bilakaera

Historia pixka bat eginez, aipatzekoa da XX. mendean zehar ia ia hirukoiztu egin dela Euskal Herriko biztanleria. Ondoren aurkezten dugun taulan ikus daitekeen bezala, 1900. urtean 1.084.616 biztanle eta 1991. urtean 2.868.301 biztanle zituen Euskal Herriak. Hau da, 90 urtetan %165 handitu da populazioa.

1. TAULA: EUSKAL HERRIKO POPULAZIOAREN BILAKAERA XX. MENDEAN	
Urtea	Biztanle kopurua
1900	1.084.616
1910	1.160.023
1920	1.272.645
1930	1.421.920
1940	1.516.852
1950	1.629.172
1960	1.978.035
1970	2.562.760
1981	2.879.032
1991	2.882.766

Iturria: Klaudio Harluxet Fundazioaren Munduko Atlas

Biztanlegoa hirukoiztu bada ere, hazkunde hau guztia ez da geografikoki homogeneoa izan. Arrazoi ugari dauzkagu baieztapen hau egiteko:

Alde batetik, aipatu behar da XX. mendearen hasieran desberdintasun handiak sortzen hasi zirela industri eta nekazaritza-inguruetako biztanle kopuruen artean. Izan ere, industriaren garapenak industri-eremuetara bultzatu zuen populazioa eta nekazaritza-lurralde asko ia hustu egin ziren.

50. eta 60. hamarkadetan, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan gertatu zen iraultza industrialak, joera demografiko hau areagotu besterik ez zuen egin. Garapen ekonomikoak erakarrirako etorkin gehienak industria indartsu zegoen Bilbo Handia eta Donostialdea bezalako inguruneetan kokatu baitziren.

Industriaren hazkundeak sortu zuen desoreka honekin batera, turismoaren garapenak bultzatutako biztanleriaren mugimenduak gogoratu behar dira. Turismora bideratu diren Euskal Herriko herriek, bereziki kostaldekoek, jende ugari erakarri dute azken urteotan eta, ondorioz, asko handitu dira. Joera demografiko horren adibiderik argienetakoa da Iparraldean gertatutakoa. Eremu geografiko honetan, hain zuzen ere, ohituraz nekazaritzari loturik bizi izan diren Zuberoak eta Nafarroa Beherak biztanleak galdu badituzte ere, kostaldean dagoen Lapurdik irabazi egin ditu. Inolako zalantzarik gabe, turismoak eta bertan bizitzera etorri diren hainbat frantziarrek zerikusi asko izan dute horretan (Larrañaga:1993, 39).

Honela, bada, gaur egun bi zati desberdin bereizten dira Euskal Herrian populazioari dagokionez: industria eta turismoaren inguruan antolatuta dauden eta biztanle kopuru handia duten udalerriak (Bilbo, Donosti, Zarautz eta Miarritz, adibidez), eta nekazaritza-lurraldeetako udalerri txikiak (Pipaon, Gizaburuaga eta Lekaroz, esaterako).

Hazkunde demografikoa ez dela homogeneousa izan ulertzeko beste arrazoia da, populazioaren hazkundera, batez ere, Hegoaldean gertatu dela. Hau da, Euskal Herriak ezagutu duen hazkunde demografikoa, 50. eta 60. hamarkadan iraultza industrialak, bereziki Bizkaira eta Gipuzkoara, baita Gasteizera (azken kasu honetan, batez ere EAE-ko erakunde ofizialak bertan kokatu zirelako) eta Iruñeara ere, erakarri zituen etorkinen ondorioz gertatu da. Zentzu honetan, argi izan behar dugu Ipar Euskal Herrian ez dela hazkunde demografiko handirik izan; eremu honetako fenomenoak hazkundera baino aldaketa izan da. Hau da, nekazaritza-guneetatik hiri industrializatuetakorako joera izan da; nagusiki Zuberoa eta Nafarroa Beheretik Lapurdira (Miarritze-Angelu-Baiona ardatzera batik bat).

Honela, bada, Euskal Herriko zatirik nagusiena (%91,5), Hegoaldean kokaturik dago, eta bestea, txikiena (%8,5), Iparraldean. Era berean, hiri populatuena ere Hegoaldean koka-

tzen dira. Adierazgarria da, zentzu honetan, 10.000 biztanle baino gehiago dauzkaten udalerriak Euskal Herrian 51 direla eta horietatik 46 Hego Euskal Herrian daudela (40 Euskal Autonomia Erkidegoan eta 6 Nafarroan) eta bakarrik 5 Iparraldean.

Laburbilduz, biztanleriaren mugimendu eta bilakaera desberdinak ezagutu dira Iparraldean eta Hegoaldean, baita nekazaritzari loturiko barnekaldeko herrien eta turismoari eta industriari loturiko hirien artean ere. Datuak ikusita, eta biztanleria herrien gorputza eta etorkizuna ziurtatzeko eragile garrantzitsuenetarikoa dela kontuan hartzen badugu, Iparraldea eta, oro har, Euskal Herriko nekazal eremuko herriak geroari aurre egiteko egoera ahulagoan daudela pentsa daiteke; hain zuzen ere, gauzak gaurko bidetik badoaz, etorkizunean jende falta izango dutelako.

2. Hazkunde negatiboaren arrazoiak

Denbora gutxian Euskal Herriak hazkunde izugarria ezagutu bazuen ere, 1970ko hamarkadako krisi ekonomikoa medio, hazkunde demografikoa gelditu eta, ondoren hazkunde negatiboa hasi zen. Joera demografiko hau azaltzen duten arrazoiaren artean aipatu behar da, bereziki EAEn, bere garaian industri garapenak erakarrita estatu espainiarretik etorri ziren batzuk euren herrietara itzultzen hasi zirela 80. hamarkadaz geroztik (Bilbo Handiaren ezkerkaldeko biztanle asko eta asko, esaterako). Datu honi, bertoko jende gaztea kanpora joaten hasi zela lanera eta etorkin herririk ez dela etortzen gaineratu behar diogu, Euskal Herriaren hazkunde negatiboa ulertzeko.

Dena dela, hazkunde negatiboa azaltzeko arrazoi garrantzitsuenak da, inolako zalantzarik gabe, azken hogeitaz urteetan ugaltze-tasa izugarri jaitsi dela. Aquitaniako INSSE-k, Nafarroako Gobernuak Estatistika Zerbitzuak eta EAEn EUSTAT erakundeek ematen dituzten datuen arabera, Euskal Herriko ugaltze tasa 1,5koa zen 1995. urtean (0,92 EAE-n eta 1,96 Iparraldean eta Nafarroan); hau da, 1,5 ume jaioz ziren bikoteko, hogeitaz urte lehenenago tasa hau hiruren inguruan zegoelarik.

Industriaren hazkundeak sortu zuen desoreka honekin batera, turismoaren garapenak bultzatutako biztanleriaren mugimenduak gogoratu behar dira. Turismora bideratu diren Euskal Herriko herriek, bereziki kostaldekoek, jende ugari erakarri dute azken urteotan eta, ondorioz, asko handitu dira. Joera demografiko horren adibiderik argienetarikoa da Iparraldean gertatutakoa. Eremu geografiko honetan, hain zuzen ere, ohituraz nekazaritzari loturik bizi izan diren Zuberoak eta Nafarroa Beherak biztanleak galdu badituzte ere, kostaldean dagoen Lapurdik irabazi egin ditu. Inolako zalantzarik gabe, turismoak eta bertan bizitzera etorri diren hainbat frantziarrek zerikusi asko izan dute horretan (Larrañaga:1993, 39).

Honela, bada, gaur egun bi zati desberdin bereizten dira Euskal Herrian populazioari dagokionez: industria eta turismoaren inguruan antolatuta dauden eta biztanle kopuru handia duten udalerriak (Bilbo, Donosti, Zarautz eta Miarritz, adibidez), eta nekazaritza-lurraldeetako udalerri txikiak (Pipaon, Gizaburuaga eta Lekaroz, esaterako).

Hazkunde demografikoa ez dela homogenea izan ulertzeko beste arrazoia da, populazioaren hazkundera, batez ere, Hegoaldean gertatu dela. Hau da, Euskal Herriak ezagutu duen hazkunde demografikoa, 50. eta 60. hamarkadan iraultza industrialak, bereziki Bizkaira eta Gipuzkoara, baita Gasteizera (azken kasu honetan, batez ere EAE-ko erakunde ofizialak bertan kokatu zirelako) eta Iruñeara ere, erakarri zituen etorkinen ondorioz gertatu da. Zentzu honetan, argi izan behar dugu Ipar Euskal Herrian ez dela hazkunde demografiko handirik izan; eremu honetako fenomenoak hazkundera baino aldaketa izan da. Hau da, nekazaritza-guneetatik hiri industrializatuetakora joera izan da; nagusiki Zuberoa eta Nafarroa Beheretik Lapurdira (Miarritze-Angelu-Baiona ardatzera batik bat).

Honela, bada, Euskal Herriko zatirik nagusia (%91,5), Hegoaldean kokaturik dago, eta bestea, txikiena (%8,5), Iparraldean. Era berean, hiri populatuenak ere Hegoaldean koka-

Bereziki ugaltze-tasaren jaitsiera adierazgarria izan da EAEn. Eremu geografiko honetan, 1995ean bikote bakoitzak, batez beste, 0,91 seme-alaba zituen, hogeitaz hamar urte lehenago 2,7 haur jaiotzen zirelarik bikoteko. Eta horren arrazoia nagusienak dira emakumeak lan-merkatuan sartzearen ondorioz, amatasunari buruzko pentsamolde, balio edota jarrearen aldaketa eman dela eta, horrekin batera, haurdunaldien adina igo egin dela (EAEn, esaterako, haurdunaldien adina 2,5 urte igo da 1975tik 1995era; hau da, 28,5etik 31 urtetara).

Lehen aipatutako erakundeek egiten dituzten prospekzioen arabera, dena dela, 2010. urteko jaiotza-tasa Euskal Herrian 1,82-koa izango da (2,08 Akitanian eta Nafarroan eta 1 Euskal Autonomia Erkidegoan). Hau da, Europako beste herrialde batzuetan gertatzen ari den bezala, apurka apurka ugaltze-tasa handitzen joango da.

Ala eta guztiz ere, belaunaldien ordezkaketa arazorik gabe egiteko ugaltze-tasa 2,1ekoa izan behar dela kontuan hartzen badugu, Euskal Herrian, bereziki EAEn, ez dagoela belaunaldien ordezkaketa behar bezala ziurtaturik ondorioztatu beharrean gaude. Hau da, ugaltze-tasa gora joango bada ere (2010. urtean 1,82 izango da), urte asko beharko dira 2,1era heltzeko. Zehatzago esateko, belaunaldien ordezkaketa ziurtatzen duen ugaltze-tasa hau 2030. urtean, hau da, 30 urte barru, lortuko da.

Datozen urteetan jaiotze tasa handitzen joango bada ere, ezin dugu aiantzi heriotzak jaiotzak baino gehiago izaten jarraituko dutela. Hau da, berezko hazkunde negatiboa izango dugu Euskal Herrian datozen urteetan.

Aipaturiko estatistika erakundeek egiten dituzten prospekzioen arabera, 2010. urtean 1000 biztanleko 11,61 heriotza egongo dira eta, aldiz, 11,5 jaiotza, hau da, 1000 biztanleko jaiotza baino 0,11 heriotza gehiago egongo da Euskal Herrian 2010 urtean.

Ugaltze-tasa hain txikiekin loturik dagoen beste ondorio bat da populazio gero eta zaharragoa izango dugula Euskal

Herrian. Areago, gaur bertan ere munduko biztanleria zaharretarikoa da Euskal Herrikoa. Izan ere, ume gutxi jaiotzeaz gain, herrialde garatu gehienetakoa baino altuagoa da Euskal Herriko bizilagunen bizi-itxaropena.

Gainera, bizi-itxaropen hau handitzen joango da datozen urteetan. Aipatutako hiru estatistika erakundeek ematen dituzten datuen arabera, Euskal Herriko gizonezkoen bizi-itxaropena 2010. urtean 77,3koa (77 Aquitanian, 75,1 EAEn eta 78,5 Nafarroan) eta emakumezkoena 85,2 urtekoa izango dira (85,2 Iparraldean eta 85,3 EAE-n).

3. TAULA: BIZI-ITXAROPENARI BURUZKO PROIEKZIOA EAE-n		
	Gizonezkoen bizi-itxaropena	Emakumezkoen bizi-itxaropena
1998	74,8	83,2
1999	74,9	83,4
2000	75,1	83,6
2001	75,2	83,8
2002	75,4	84,0
2003	75,5	84,2
2004	75,6	84,3
2005	75,8	84,5
2006	75,9	84,7
2007	76,0	84,8
2008	76,2	85,0
2009	76,3	85,1
2010	76,4	85,3

Iturria: EUSTAT. Biztanleri Proiekzioak

Hitz gutxitan esateko, biztanleriaren inguruko datuek belau-naldien ordezkaketa ez dagoela behar bezala ziurtatua, eta gero eta Euskal Herri zaharragoa izango dugula erakusten digute. Ikus ditzagun joera demografiko hauek ekarriko dizkiguten ondorio nagusienak.

3. Biztanleriaren zahartzearen eta jaiotze-tasa txikien ondorioak

Umeak gutxitu eta, aldiz, zaharren kopurua handitzeak eragin politiko, ekonomiko eta kulturalak, zein baloreen aldaketak eragingo dituzte. Ikus ditzagun zer-nolakoak izango diren aldaketok:

1. Biztanleriaren zahartzeak ondorio politikoak izango ditu; hain zuzen ere, zaharren kopurua handitzen doan heinean, kontserbadurismorako joerak nabarmendu eta, horrekin batera, eskumako politikak aldarrikatzen dituzten alderdi politikoak indartuko direlako.

2. Martxan dagoen zahartze prozesuak gizarte mailako inplikazioak ere izango ditu. Hala, nola, zaharrak ugaltu eta gazteak gutxitzearekin batera, euskal gizarteak eraginkortasuna eta ekintza gaitasuna galduko ditu. Bereziki herri txikietan, gazteak gutxitzen doazen heinean, kultur arloko ekintzak, jaiak edo edozein motatako elkarteak sortu eta antolatzea zailagoa izango dela pentsatu behar da. Eta honek, gizartearen bizi-kalitatea txartzea eta, ondorioz, bizi toki bezala erakargarritasuna galtzea esan nahi du, inolako zalantzarik gabe.

3. Ikuspuntu ekonomikotik, kontuan hartu behar da populazio aktiboaren gutxitzeak gizarte segurantzaren eta, oro har, Euskal Herriko erakunde publikoen sarrera ekonomikoak murriztea esan nahi duela. Ondorioz, jubilazioak eta, oro har, gizarte zerbitzu eta prestazioak ordaintzeko gero eta arazo handiagoak izango dituzten erakundeek.

4. Ume kopurua gutxitzea eta zaharren kopurua handitzeak merkatuaren ikuspuntutik ere ondorio garrantzitsuak izango ditu. Hain zuzen ere, umeentzako produktuen merkatuak garrantzia galdu eta, aldiz, hirugarren adinekoekin loturikoak indarra hartuko dute. Izan ere, etorkizunean zahar gehiago egoteaz gain, adin talde honen kontsumo joerak eraldatuko dituen balore aldaketa sakona gertatzen ari da. Hain zuzen ere, orain dela gutxirarte, nagusiak, jubilatutako ondoren etxean sartu eta fa-

milia, atsedena eta oroimenei loturik bizitzen ziren heriotza ordua heldu arte. Gaur egun, jende nagusia osasun baldintza hobetoetan heldu da jubilaziora eta, ondorioz, lehen baino gauzak egiteko gogo gehiago izaten du. Zentzu honetan, beste adin talde batzuk baino diru sarrera txikiagoak izango dituztela onartuta ere, zenbait industriren oinarri garrantzitsuenak bihurtuko dira. Adibide bat jartzearen, gogoratu gaur egun ere hirugarren adinekoak industria turistikoaren bezero garrantzitsuenetarikoak direla, batez ere neguan.

5. Gizarte zerbitzuen inguruko politikek ere aldaketak jasango dituzte. Zehatzago esateko, Euskal Herrian haurtzaindegia gutxiago eta zahar-etxe eta hauen laguntzarako zerbitzu eta azpiegitura gehiago beharko dira etorkizunean.

6. Umeak gutxitu eta zaharren kopurua handitzearen ondorio hauek guztiak are eta gehiago nabarituko dira udalerri txikietan, eta horrek, epe luzean, udalerri txiki askoren heriotza ekarriko du. Izan ere, berezko hazkunde negatiboaz gain, ugariak dira herri txikien bizi-kalitatea murrizten dagoela, eta, ondorioz, apurka apurka husten joango direla erakusten diguten datuak:

- Alde batetik, Euskal Herriko udalerri txikietan nekazaritzan lan egiten dutenen portzentaiak jaitsi egin direla (Bizkaiko udalerri txikietan esaterako, nekazaritzan lan egiten dutenen portzentaiak 1986. urtetik 1991. urtera %22-tik %16-ra murriztu ziren) eta, aldiz, lanpostu berrien iturri izango diren lantegi industrialik ez dela sortzen ikusten da. Herrian bertan lan egiteko gero eta aukera gutxiago dituzte herri hauetako biztanleak.

- Bestetik, egunetik egunera era guztietako zerbitzuak desageritzen doaz. Osasun zerbitzu eta azpiegitura gutxi izateaz gain, garraio publikoak, dendak zein beste edonolako zerbitzuak gero eta urriagoak dira. Derrigorrezko Bigarren Hizkuntzaren (DBH) ondorioz EAEko zenbait udalerri txikietako 12 urtetik gorako umeak beste herri batzuetako eskolara bidaltzea zerbitzuen murrizte orokor honen adibide bat besterik ez da.

4. Azken gogoeta

Aurrerantzean, eta gutxienez 2030. urterarte, Euskal Herrian berezko hazkunde negatiboak ezagutuko baditugu ere, ezin dugu ahortzi urtez urte 95 milioi biztanletan hazten ari den mundu honetan, migrazioek garrantzi izugarria izango dutela. Herrialde txiroetatik aberatsetara emango diren migrazioak izango dira nagusiki, eta Euskal Herrian ere eragin nabarmena izango dute. Inñaki Larrañagak dioen bezala, "Etorkizunari begira, guzti honek, zenbait adituen ustez, 2. trantsizio demografiakoan sartzen hasiak gairela adierazten du. Hazkunde deskontrolatuaren ereduak porrot egin du, ez bakarrik demografiaren arloan, ekonomian, hirigintzan eta beste hainbatetan. Hazkunde deskontrolaturik hazkunde kontrolatura pasatzeko garaia heldu denez, oreka berri bat aurkitu beharra dago, eta noski, hazkunde naturalaren bidez lortzen ez bada, migrazio-mugimenduen bidez burutuko da" (Larrañaga, 1993: 45).

Momentu honetan 23.000 bat etorkin bizi dira gutxi gora-behera Hego Euskal Herrian (10.000 Nafarroan eta 13.000 EAE-n) eta hemendik aurrera kopuru hau handitzen joango dela pentsa daiteke. Izan ere, badirudi ezagutza maila oso handia (elektronika, teknologia edota informatikarekin loturiko lanbideetan, adibidez) edo oso txikia behar den lanbideetan (basoan edo itxasoan, esaterako) lan-eskuaren beharra egongo dela. Gainera, jubilazioak kobratu nahi baditugu nahitaezkoa izango da etorkinei ateak zabaltzea.

Honenbestez, hurrengo urteetan gure herrien osaketa errotik aldatuko duten inmigratio uholdeak ezagutuko ditugu Euskal Herrian. Gaur egun beste arraza, kultura eta jatorri batzuetako pertsona gehienak hiri handietan aurkitzen baditugu ere, apurka apurka herri txikietan ere ikusiko ditugu. Eta horrek, bizi-modu, erlijio, ohitura eta, orokorrean, kultura desberdinak dituztenekin bizitzen ikasi beharko dugula esan nahi du. Era berean, arrazakeria eta migrazioek sor ditzaketen arazo sozialak ere gero eta arruntagoak izango dira. Zentzu honetan, etorki-

nen egoerari behar bezalako erantzuna ematea epe labur eta ertainean Euskal Herriak izango duen erronka handienetarikoa izango da.

5. Erabilitako liburuak

- Arregi, B. eta Larrañaga, I.: "Población", *EUSTAT: Euskal Aeko ikuspegi soziala* (2000), Vitoria-Gasteiz.
- EUSTAT (2000): *Biztanleri Proiekzioak*. EUSTAT
- EUSTAT (1997): *Euroregioa Zifratan*. EUSTAT.
- Larrañaga, I. (1993): Euskal Demografiaren bilakaera. *Jakin* 77-78
- Klaudio Harluxet Fundazioa: *Munduko Atlas* (1997). Klaudio Harluxet Fundazioa, Donostia.
- Saizarbitoria, R. (1993): "Zahartze demografikoa". *Jakin* 77-78

Patxi Juaristi